

Matrikulatu zure seme-alabak hezkuntza publikoan **ANPEk ikastetxe publikoetan matrikulatzeko kanpaina martxan jartzen du**

Hezkuntza publikoak gure gizartean duen balioa agerian jartzeko asmoz, ANPEk, beste urte batez, “Matrikulatu zure seme-alabak Hezkuntza Publikoan” kanpaina abian jartzen du eta irakasleei, familiei eta ikastetxeei mezu hau zabaltzera animatzen zaituzte.

Hurrengo egunetan diru publikoarekin mantentzen diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, 2020-2021 ikasturterako aurre-matrikulazio epea irekiko da. Gure gizartean funtsezko zeregina betetzen duten zentro publikoak nabarmendu nahi ditugu; eta beraien dedikazio eta profesionaltasunagatik irakasleek egiten duten lana indartu nahi dugu, izan ere, kalitatezko hezkuntza-maila altua mantentzen dute eta horregatik denon onespena merezi dute.

Horregatik, familia, irakasle eta zuzendaritza taldeei zuzendutako “matrikulatu zure seme-alabak Hezkuntza Publikoan” kanpaina abian jarri dugu. Honen helburua Hezkuntza Publikoan dauden ikasleen kopurua handitzea da.

Hezkuntza Publikoa beharrezkoa da gure gizartean. Hezkuntza Publikoak ikasle guztien esku jartzen du aukera berdintasuna, kalitatezko hezkuntza eta doktrinamendu askea

ANPEk Hezkuntza Publikoarentzako baliabideen aurrekontua handitzea eta Nafarroako ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzen jarraitzeko bertan lan egiten duen irakaslegoaren onspena eskatzen jarraituko du.

Horregatik, Hezkuntza Publikoko irakasleei soilik loturiko erakunde sindikal gisa, betebeharra eta harrotasuna sentitzen dugu Hezkuntza Publikoa defendatzeko eta merezi duen duintasuna emateko.

Ekimen honekin, Hezkuntza Publikoko irakaslegoaren eta hezkuntza-komunitatearen babesa izatea eta matrikularen bidez ikasleen kopururik handiena erakartzeko aukera izatea espero dugu.

ANPE Nafarroa, Hezkuntza Publikoko irakaslegoaren sindikatua.